

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

ehukultura

**Egitaraua** | Programa

# URTARRILA-MARTXOA
# ENERO-MARZO
# 2020

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. Bilbao

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

Ilustrazioa/Cartel **Ane Pikaza**

# ARTXIBOAK, BEHARREZKO ERREGISTROAK

# ARCHIVOS, REGISTROS NECESARIOS

**Talde erakusketa** / Exposición colectiva

**Urtarrilak 14** enero - **otsailak 21** febrero

**Salas Axular/Etxepare aretoak. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

09.00-19.30 (astelehenetik ostiralera / lunes a viernes)



**Irudia**/Imagen: **Juana García Pozuelo**

**Erakusketa honetan, hainbat artistaren lanak daude ikusgai. Guztiek egiten dute hausnarketa inguruan dugunari buruz, askotariko esparruetatik eta beti ere sentsibilitate feministatik: ekologia, arkitektura, memoria, egunerokotasunaren aldarrikapena, emakumeek landa-eremuan pairatzen duten ikusezintasuna... Gure asmoa ez da artisten lanak linealki, kronologikoki erakustea. Horren ordez, proiektu artistikoak denbora neurtzeko beste modu eta harreman batzuen arabera antolatu nahi izan ditugu, modu horretan elkar lotzen dituzten elementuen bitartez ezberdin, berezi edo esanguratsu egiten dituzten arrazoietako batzuk ikusgai jartzeko, nire ustez komunitate artistikoari berezkoak zaizkion zenbait kontakizun kanonikoren edukiak berrikusteko lagungarriak izan daitezkeen hainbat ahotsen eta ikuspegiren aniztasuna lortzea xede.**

En esta exposición presentamos una serie de trabajos de diferentes artistas que reflexionan de muy distintos modos sobre el entorno que las rodea, pero que lo hacen siempre desde una sensibilidad feminista; y lo hacen además desde territorios tan diversos como la ecología, la arquitectura, la memoria, la reivindicación de lo cotidiano, o la denuncia de la invisibilidad de las mujeres en el mundo rural. No pretendemos mostrar sus trabajos de una manera lineal, cronológica; se pretende más bien dar cuenta de sus proyectos artísticos a partir de otras temporalidades y filiaciones, que permitan vislumbrar algunas de las razones que los hacen diferentes, particulares o significativos. Se trataría por tanto de ver cómo, a través de sus interconexiones, queda registrada toda una variedad de voces y puntos de vista que nos ayudan a revisar y cuestionar el contenido de ciertos relatos canónicos propios de la comunidad artística.

**Proiektuaren koordinatzailea** / Coordinación del proyecto:
Estibaliz Sádaba Murguía

**Artistak /** artistas:
Ajuar, Garazi Ansa, Cristina Arrazola-Oñate, Rosalía Banet, Ángela Bonadies, Caterina Borelli, Lara Dopazo, Juana García Pozuelo, Leire Goikoetxea, Miriam Isasi, Mercedes Jaén, Ana Penyas, Saray Pérez Castilla, María Ptqk

## JARDUERAK

### Urtarrilak 14
19.30

**Inaugurazioa**
Axular/Etxepare aretoak

### Urtarrilak 23
19.00

**Bisita gidatua**
Axular/Etxepare aretoak

### Urtarrilak 27
16.30-19.30

**Tailerra: Dando voz a las imágenes. Textos basados en la exposición Artxiboak, Beharrezko erregistroak - Archivos, registros necesarios.**

## ACTIVIDADES

### 14 enero
19.30

**Inauguración**
Salas Axular/Etxepare

### 23 enero
19.00

**Visita guiada por la Comisaria**
Salas Axular/Etxepare

### 27 enero
16.30-19.30

**Taller: Dando voz a las imágenes. Textos basados en la exposición Artxiboak, Beharrezko erregistroak - Archivos, registros necesarios.**

## Otsailak 05
18.30

**Prozesuak: Artista eta bere obraren arteko topaketa.**
Axular/Etxepare aretoak

## 05 febrero
18.30

**Procesos: Encuentro entre el artista y su obra.**
Salas Axular/Etxepare

## Otsailak 06
18.30

**Prozesuak: Artista eta bere obraren arteko topaketa.**
Axular/Etxepare aretoak

## 06 febrero
18.30

**Procesos: Encuentro entre el artista y su obra.**
Salas Axular/Etxepare

## Otsailak 19
18.30

**Tailerra: Artxiboak, beharrezko erregistroak**
Oteiza aretoa

## 19 febrero
18.30

**Taller: Archivos, registros necesarios**
Sala Oteiza

**Informazio gehiago /** más información:

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

# ASPACE BIZKAIA FILMA

Zinema/ Cine

Urtarrilak 14 enero 11.00

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Auditorioan**
**Sarrera libre aretoa bete arte /** Entrada libre hasta completar aforo

EUS



UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduko 3. mailako Errealizazioa I irakasgaiko ikasleak eta ASPACE Bizkaiako kideak elkarlanean ari dira film laburrak garatzen. Ekimen hau Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan oinarrituta dago (UPV/EHUko IKD markoaren barruan), eta helburu nagusi bi ditu: desgaitasuna arte sorkuntzaren munduan sartzen laguntzea eta gizartea garuneko paralisiaren errealitateari buruz sentsibilizatzea.

ASPACE BIZKAIA FILMA proiektuarekin, ikasleek curriculumeko gaitasunak garatzeaz gain, elkarlanerako gaitasunak eta gaitasun etiko eta sozialak ere lantzen dituzte Ikaskuntza Zerbitzua metodologia barneratuz. ASPACE Bizkaia erakundearen laguntza, lankidetza eta aholkularitza etengabekoa eta funtsezkoa izan da proiektua martxan jarri zenetik.

UPV EHU

Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea
*Comunicación Audiovisual y Publicidad*

ASPACE BIZKAIA

# ZINEGOAK 2020

## **Zinema eta hitzaldiak /** Cine y conferencias

**Otsailak 24** febrero - **martxoak 8** marzo

**Leioa campusa eta Bizkaia Aretoa /** Campus de Leioa y Bizkaia Aretoa
**Sarrera libre aretoa bete arte /** Entrada libre hasta completar aforo

CAS




**Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia, otsailaren 24tik martxoaren 8ra bitartean izango da.**

**Bi aste horietan, Bilbo sexu aniztasunari, identitateari eta generoari buruzko zinemaren eta kulturaren erreferentzia eta hitzordu saihestezina bihurtzen da. Jarduera paralelo ugari antolatzen dira, esaterako solasaldiak, musika, jarduera eszenikoak, jaiak eta abar. Hauek azpimarra daitezke, besteak beste: ZG jardunaldi profesionalak, Mastreclass eta Workshops direlakoak eta hitzaldi bereziak, Komunikazioko, Arte Ederretako eta ikus-entzunezko eta zinemako prestakuntza espazioetako ikasleentzat berariaz pentsatutakoak.**

Cine y Artes Escénicas gaylesbitrans de Bilbao celebrará entre el 24 de Febrero y el 8 de Marzo su edición número 17.

Dos semanas donde Bilbao se convierte en la referencia y la cita inexcusable del cine y la cultura sobre diversidad sexual, de identidad y género y en las que ademas se organizan gran cantidad de actividades paralelas, coloquios, música, actividades escénicas, fiestas... y en las que os destacamos las jornadas profesionales ZG. Mastreclass, Workshops y charlas especiales pensadas específicamente para el alumnado de Comunciación, Bellas Artes y los distintos espacios de formación audiovisual y cinematográfica.

**Hemen kontsulta ditzakezu jarduera horiek guztiak eta askoz informazio gehiago**/ puedes consultar todas esas actividades y mucha más información en: **www. zinegoak.com**

# INDIE+ FESTIVAL

**Musika/** música

**Otsailak 21 / 28** febrero

20.00

**Sala Mitxelena aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

**Otsailak 21** febrero



**Otsailak 28** febrero



INDEPENDENTE:

1 adj. Burujabea, beregaina, inoren mende ez dagoena.

Hiztegiak ematen duen definizioak balio dezake 1970eko eta 1980ko hamarkadetako musikan «indie» terminoa nola sortu zen ulertzeko. Gazteak haserre zeuden, ez zuten inoren

INDEPENDENTE:

1. adj. Que no tiene dependencia, que no depende de otro.
2. adj. Autónomo.
3. adj. Dicho de una persona: Que sostiene sus derechos u opiniones sin admitir intervención ajena.

La definición del diccionario podría servir para intentar entender el nacimiento en la música del término

mende egon nahi ez abestiak idazteko eta argitaratzeko ez birak eta kontzertuak antolatzeko. Modu autonomoan eta autogestionatuan egin nahi zuten guztia, zuzen eta etikoki, multinazional handirik gabe, bai diskoak grabatzeko bai fanzineak editatzeko eta egiazko eta zuzeneko eran sortzen ari zena transmititzeko, eta euren musika eta iritziak defendatzen zituzten, inori eskua sartzen utzi gabe. Horrez gain kontuan hartzen baditugu artea arteagatik egitea, estetika, do it yourself kontzeptua, munduko egoera politikoa, etxe okupatuak, amorrua, punka, hardcorea, straight edge mugimendua eta lehen jaialdiak, ulertuko dugu historiako une garrantzitsu bat izan zela, eta, nolabait, betiko aldatu zuen musika.

Gero, sistemak, nahi duena egiteko ahalmena duenez, mugimendua eta kontzeptua bereganatu eta okertu zituen, eta ia marka bihurtzea lortu zuen. Baina gaur egun oraindik badago mundu independente batean bizi den artistarik, arteari dagokionez behintzat, eta bide zailak eta arriskutsuak egiten dituzte, denborek, multinazionalek, babesleek edo sare sozialek zer eskatzen duten aintzat hartu gabe. Artea arteagatik, berriro ere. Ezagut ditzagun.

“indie” durante las décadas de los 70 y los 80. Jóvenes enfadados que no querían depender de nadie para escribir y publicar sus canciones u organizar sus giras y conciertos, que querían hacer todo de manera autónoma y autogestionada, de manera justa y ética, sin las grandes multinacionales, ya fuese para grabar sus discos o para editar sus fanzines y transmitir lo que estaba surgiendo de una manera veraz y directa, y que defendían su música y sus opiniones sin admitir injerencia ninguna. Si a esto le sumamos el arte por el arte, la estética, el concepto “do it yourself”, la situación política mundial, los squats, la rabia, el punk, el hardcore, el movimiento straight edge, los primeros festivales, entenderemos que fue un momento único en la historia y que de alguna manera cambió la música para siempre.

Después, el sistema, que todo lo puede, absorbió el movimiento y el concepto y lo pervirtió hasta casi convertirlo en una marca. Pero aún hoy podemos encontrar artistas que, al menos a nivel artístico, se mueven en la independencia y transitan caminos difíciles y arriesgados lejos de lo que los tiempos, las multis, los sponsors o las redes sociales demandan. Otra vez el arte por el arte. ¡Descubrámoslos!

## Otsailak 21 febrero
# SOLEDAD VÉLEZ



Soledad Velez Valentzian (Espainia) bizi den eta etengabe bilakatzen ari den artista txiletar bat da.

2016an, Dance and Hunt bere 3. albumarekin harritu gintuen, sintetizadoreak eta elektro erritmoak sartu baitzituen bertan; 2017an, Violeta Parra herrikidea omendu zuen haren mendeurrenean, eta 2018an, beste jauzi kualitatibo bat eman zuen: «Nuevas Épocas» argitaratu zuen. Gaztelaniaz abestutako bere lehen diskoa izan zen, oso-osorik sintetizadore eta teklatu analogikoekin egina.

Emaitza hain emankorra izan da, ezen El Álamon berriro grabatu baitu Guille Mostazarekin single berri bat, «No Vuelvas». Bertan Soledadek, pauso bat harago emanez, bere soinua birsortzen du hiriko musikari keinuak eginez.

Etengabeko mugimenduan dabilen Soledad Vélez gure egungo musika-panoramako artistarik interesgarrienetako bat da.

Soledad Vélez es una artista chilena afincada en Valencia (España) en constante evolución.

En 2016 sorprendió introduciendo sintetizadores y ritmos electro en su 3er álbum «Dance and Hunt»y en 2018, tras un 2017 en el que homenajeó a su paisana Violeta Parra por su centenario, dio otro salto cualitativo: publicó «Nuevas Épocas», su primer disco en castellano y tocado íntegramente con sintetizadores y teclados analógicos.

El resultado ha sido tan fructífero que acaba de grabar de nuevo en El Álamo con Guille Mostaza un nuevo single, «No Vuelvas», y en él Soledad da otro nuevo paso regenerando su sonido con guiños a la música urbana.

Soledad Vélez, en constante movimiento, es una de las artistas más interesantes de nuestro panorama musical actual.

## Otsailak 21 febrero
# ELENA SETIEN



Elena Setien artistaren ezaugarri dira ñabarduraz betetako konposizioak. Multiinstrumentalista honen musika indibidualismo gordinetik dator, bai eta Euskadiri jaioterriari lotutako enpatiatik ere. Haren keinuek, bai musikaletan bai literaturan, bizitzaz betetzen dituzte alegoria adierazkorrak. Moldaketak zuzenak eta hunkigarriak dira, eta esperimentazioari keinu egiteko aukera ematen diote. Elenaren grabazioak berez popa diren arren, ibilbide oparoa du inprobisatzaile gisa. Elenaren hurrengo lana, «Another Kind of Revolution»–harekin debuta egingo du Thrill Jockey zigilu estatubatuar ospetsuan–, edertasun liluragarriko disko bat da, itxuraz ahaleginik gabe sortua.

Elena Setien es una artista que se define por sus composiciones llenas de matices. La música de esta multi-instrumentalista emana de un crudo individualismo y de una empatía ligada a Euskadi, su tierra natal. Sus gestos, tanto en musicales como literarios, llenan de vida sus expresivas alegorías. Los arreglos son directos y conmovedores y le permiten hacer guiños a la experimentación. Aunque las grabaciones de Elena son decididamente «pop», ella tiene una considerable trayectoria como improvisadora. Su último trabajo «Another Kind of Revolution»- su debut en el prestigioso sello estadounidense Thrill Jockey- es un disco de fascinante belleza, que surge sin esfuerzo aparente.

## Otsailak 21 febrero

# MICE



Urte luzez Napoka Iria taldean ibili eta gero Miren Narbaizak (Eibar, 1986) bere bakarkako ideari ekin dio. MICE *(maiz)* izenpean kaleratu zuen bere debuteko lana. Orain «Zilar Printzak» (Erraia, 2019) lau kantuko EP-a aurkezten ari da, bi kantu propio eta bi bertsioz osatua eta Joseba Baleztenak produzitua eta grabatua Gakobeltz estudioan.

Hurrengo lan luzea grabatu aurretik soinu berriak probatzen ari da zuzenekoetan eta Baleztenak lagunduta rocketik abiatzen diren askotariko estiloak eskainiko ditu gitarrak, bajua, sinteak eta ahotsekin.

Tras años en varios proyectos como Napoka Iria, Miren Narbaiza defiende su trabajo en solitario bajo el nombre de MICE *(maiz)*. Tras su debut con un disco homónimo llega «Zilar printzak», un EP de cuatro canciones, compuesto dos propios y dos versiones y que ha sido grabado y producido por Joseba Baleztena en el estudio Gakobeltz.

Antes de sumergirse en su siguiente album largo, está probando nuevos sonidos en directo. En esta ocasión vendrá acompañada de Baleztena.

## Otsailak 28 febrero
# JOSEBA IRAZOKI & LAGUNAK



Baliabide ugariko musikaria, bilatzaile nekaezina, dotore eta pragmatikoa, konposizioarekin interesatua, baina baita bat-bateko inprobisazioarekin ere. Joseba Irazokik bere marka utzi digu askotariko proiektu, abentura eta ekimen sorta batean, eta, azkenean, bere baitako «ni» barnekoiena eta pertsonalena kanporatu edo, hobeki esan, askatu du, bere izenez sinatzera ausartu den lanetan.

Hauek dira bere oinarriak: gitarra irudimentsuak; sekulako dohainak naturaltasuna darien bukleak sortzeko, hainbesteko naturaltasuna non efektu horiek beti inguratzen gaituen airean egon direla dirudien; ahots garbi, ziur eta hunkigarri bat; eta melodia jenialak bakantzeko gaitasun aparta. Horietaz guztietaz baliatuz, eta euskal lirika birsortuz, hitzen hotsak leuntzearekin batera, Joseba Irazokik, ahalmen harrigarriarekin, aurrera atera du ausarta eta zentzuzkoa den proiektu bat, hurbila eta, aldi berean, tolesdura zoragarriz josia.

Músico versátil e inquieto, elegante y pragmático, tan interesado por la composición como por la improvisación, Joseba Irazoki viene dejando su impronta en una heterogénea amalgama de proyectos, aventuras e intenciones que han acabado por expulsar, o mejor dicho, liberar, su yo más introspectivo y personal en los trabajos en los que se ha atrevido a rubricar con su nombre de pila.

Fundamentándose así en unas guitarras imaginativas, en su capacidad para elaborar bucles que derrochan naturalidad, como si siempre hubieran flotado entre nosotros, en una voz franca, segura y emocionante, y en la capacidad para arrinconar geniales melodías, deformando la lírica vasca y recreando una dulzura a priori impensable en la rocosa sonoridad de esta, Joseba Irazoki ha sacado adelante, con admirable solvencia, un proyecto valiente y sensato, inmediato y, a la par, plagado de admirables recovecos.

**Otsailak 28** febrero

# THE LIZARDS



The Lizards Bartzelonako power hirukote bat da, 2007an sortutakoa. Bereizgarri ditu, alde batetik, taldean kantatzeko moduko errepikak eta bestetik, soinu sendo bat, besteak beste Joan Jett, Motörhead edo Misfits-en eragina duena.

Hamar urte baino gehiagoan kontzertu ugari eman zituzten, baita zenbait bira ere Frantzian eta Alemanian, eta haietatik jendearen eta prentsa musikalaren onarpen handia jaso zuten. Punk eta hard rock kementsua nahasten dituztenez, aukera izan dute hainbat estilotako nazioarteko artistekin partekatzeko agertokia: Nashville Pussy (Resurrection Tour), Peter Pan Speedrock, The Last Vegas, Cavalera Conspiracy (Kaiowas Fest), The Hangmen, The Sisters of Mercy, Nelson Can (Low Festival), The Flaming Sideburns, The Dickies, The Avengers eta beste asko.

2018ko amaieran, Inside Your Head hirugarren diskoa grabatu zuten Bartzelonako La Atlantida Estudion. Otsailean kaleratutako diskoak hamabi abesti ditu, eta izenburuak dioen bezala, ezingo dituzu zure burutik atera.

The Lizards es un power trío de Barcelona formado en 2007 que se caracteriza por sus estribillos coreables y un contundente sonido que bebe de influencias como Joan Jett, Motörhead o Misfits.

Durante más de diez años realizan múltiples conciertos incluyendo varias giras por Francia y Alemania, de los cuales reciben gran aceptación por parte del público y la prensa musical. Su mezcla de punk y hard rock enérgico les permite compartir escenario con artistas internacionales de estilos diversos: Nashville Pussy (Resurrection Tour), Peter Pan Speedrock, The Last Vegas, Cavalera Conspiracy (Kaiowas Fest), The Hangmen, The Sisters of Mercy, Nelson Can (Low Festival), The Flaming Sideburns, The Dickies, The Avengers y mucho otros.

A finales de 2018 graban su tercer álbum «Inside Your Head» en La Atlantida Estudio de Barcelona. El disco, con salida el mes de febrero de 2019, contiene doce canciones que tal como indica su título no podrás sacar de tu cabeza.

## **Otsailak 28** febrero

# ELLE BELGA



Elle Belgaren laugarren diskoak baieztatu egiten du talde honek Espainiako panoraman duen erabateko paregabetasun estatusa, eta hori kantu bilduma hunkigarri, lasai eta sakon batekin lortzen du. Doinuek soinu herrikoiak eta egungoak dituzte, hots, atenporalak.

Euforia tresna politiko eta sozial gisa aldarrikatzea. Bizi- eta musika-printzipio negoziaezinei eustea. Askotan, gutxiago gehiago dela eta isiltasuna zarata bezain ahaltsua izan daitekeela ulertzea...

Jose Luis Garcia eta Fany Alvarezen talentuak badu zerbait bere lurrarekin, Asturiasekin, lotzen dituena. Euforian erro ipartarrak barneratzen dira. Norbanakoa inguruko errealitatearekin lotzen duten, eta gatazkak ikuspegi borrokalari eta baikor batetik jorratzen dituzten letrak daude. Haiek dioten bezala, «Euforia gure lubaki gerraren soinu banda da».

El cuarto disco de Elle Belga confirma su estatus de grupo absolutamente único en el panorama español y lo hace con una colección de canciones emocionantes, serenas y profundas. Melodías que suenan populares y actuales, es decir, atemporales.

Reivindicar la euforia como una herramienta política y social. Reafirmarse en unos principios vitales y musicales innegociables. Entender que muchas veces menos es más y que el silencio puede ser tan poderoso como el ruido...

Hay algo en el talento de José Luis García y Fany Álvarez que les entronca con su tierra, Asturias. La raigambre norteña se cuela en «Euforia». Hay letras que conectan al individuo con la realidad circundante y que tratan conflictos desde una óptica luchadora y optimista. Como ellos dicen, «Euforia es la banda sonora de nuestra guerra de trincheras».

# BIBA VOI: DARÍO FO ETA FRANCA RAME AKORDUAN

Antzerkia / teatro
Martxoak 12 marzo 19.30

**Sala Oteiza Aretoa.Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**
Sarrera libre aretoa bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

EUS



Dario Fo (Literatur Nobel Saria) eta Franca Rame-ren bizitza artistikoaren, euren izaeraren, lanen, ideologiaren eta konpromisoaren errepasoa egiten da ikuskizun honetan, bikoteak idatzitako obra desberdinen pusketak taularatuz modu umil eta hurbilean. Patxo Telleria-k idatzitako gidoiaren bitartez, antzezleek testu batzuk irakurri, beste batzuk interpretatu egiten dituzte publikoa bi artista horien bizitza bidaian murgiltzeko. Erabilitako antzezlanen artean ditugu *Anarkista baten ezusteko heriotza* (Julia Marin-ek itzulia), *Pistolaren begi zuri beltzak* (Jon Aurre-k itzulia), *Lazaroren berpizketa* (Patxo Telleria-k itzulia) eta *Emakume guztiok dugu historia bera* (Xabi Paia-k itzulia), besteak beste. XX eta XXI. mendean, bizitza betearen aldeko apustua egin zuten bi pertsonen azpimarragarriren inguruko obra.

**Ikuskizun mota:** Irakurraldi eta bakarrizketa antzeztuak
**Aktoreak:** Mikel Martinez, Irati Agirreazkuenaga
**Ekoizpena:** Tartean Teatroa, Loraldia festibala
**Iraupena:** 50 minutu

# OCAÑA

Antzerkia / teatro

Martxoak 31 marzo 19.30

**Sala Mitxelena Aretoa.Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**

Sarrera libre aretoa bete arte / Entrada libre hasta completar aforo

CAS



Bartzelona, 70eko hamarkada. Frankoren diktaduraren azken urteak. Jose Perez Ocaña pintore sevillarrak bere lanak ateratzeko eta mundua aldatzeko borrokatu zuen. Borroka politiko batekin eta aldarrikapen homosexualarekin hertsiki lotuta, gertakari ezagunetan nahastuta egon zen Kataluniako hiriburuko Las Ramblas auzoan.

Barcelona, años 70. Últimos años de la dictadura franquista. El pintor sevillano José Pérez Ocaña lucha por sacar a flote sus pinturas y cambiar el mundo. Íntimamente ligado a la lucha política y la reivindicación homosexual, protagonizó sonados episodios en Las Ramblas de la capital catalana.

**Dramaturgia/**dramaturgia: Unai Izquierdo
**Zuzendaria/**dirección: María Goiricelaya
**Aktoreak/**intérpretes: Unai izquierdo, Itziar Lazkano, Mikel Losada, Diego Pérez
**Bisualak/**visuales: Gheada
**Argiztapenaren diseinua/**diseño de iluminación: David Alcorta
**Jantzien diseinua/**diseño de Vestuario: Daniel F. Carrasco
**Eszenografia eta atrezzoa/**escenografía y atrezzo: Ion Etxabe, Ane Pikaza, Iago Rey, Mara Ona
**Ilustrazioa/**cartel: Ane Pikaza
**Ekoizpena/**producción: Pabellón 6 eta Makiescenica
**Iraupena /** duración: 01:20

# **TAILERRAK** / TALLERES

## Bilbao

### Microrelatos: Dando voz a las imágenes. Textos basados en la exposición Artxiboak, Beharrezko erregistroak - Archivos, registros necesarios.

**Lekua /** Lugar:
Sala Oteiza aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU.

12 ordu / horas

**Egunak /** Fechas:
Urtarrilak 27 enero - otsailak 3,10,17 febrero

**Ordutegia /** Horario:
16.30 -19.30

**Hautazko kredituen proposamena** / Propuesta de créditos optativos:
Bat ere ez/ ninguno

### Habla en Público con Seguridad y Eficacia

**Lekua /** Lugar:
Sala Oteiza aretoa. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

12 ordu / horas

**Egunak /** Fechas:
Martxoak 4,11,18,25 marzo

**Ordutegia /** Horario:
16.30 -19.30

**Hautazko kredituen proposamena** / Propuesta de créditos optativos:
Bat ere ez/ ninguno

## Leioa

## Komunikazio eraginkorra: nola transmititu nire mezua konfiantza eta ziurtasunez?

**Lekua /** Lugar:
Leioako Campusa. Mintegi-Liburutegi Zentrala. 6B gela

12 ordu / horas

**Egunak /** Fechas:
Martxoak 2,9,16,23 marzo

**Ordutegia /** Horario:
15.30 -18.30

**Hautazko kredituen proposamena**:
Bat ere ez

**Izen ematea /** inscripción:

ⓘ **www.ehu.eus/es/web/ehukultura-bizkaia/formulario2**

# EHUorkestra sinfonikoa



**UPV/EHUren helburuetako bat da kultura sustatzea, hala erakunde barruan nola erakundetik kanpo. Ildo horretan, errektorego taldeak unibertsitatearen orkestra**

Uno de los fines de la UPV/EHU es fomentar la cultura dentro y fuera de nuestra institución. En este marco, en junio de 2016 el Equipo Rectoral se planteó la creación de una

sinfonikoa eratzea pentsatu zuen 2016ko ekainean, beste unibertsitate batzuk egin duten bezala.

Gure unibertsitateko edozein kidek har dezakete parte, baina EHUorkestra sinfonikoa irekita dago, baita, unibertsitatekoak ez direnei, proiektu horretan parte hartzea nahi duten guztiei.Entseguak ostegunetan izaten dira, 17:00etatik 20:00etara, Leioako Campuseko Areto Nagusian.

**Parte hartu geure orkestran!**

Orquesta sinfónica propia, al igual que las existentes en otras universidades.

Puede participar cualquier persona de nuestra comunidad universitaria, pero EHUorkestra sinfonikoa también está abierta a la participacióndе cualquiera, externo a la Universidad, que quiera colaborar en este proyecto. Los ensayos son los jueves, de 17 a 20 h, en el Aula Magna del Campus de Leioa.

**¡Anímate a participar en nuestra orquesta!**

**www.ehu.eus/es/web/bizkaia/orkestra-sinfonikoa**

# EsZena

UPV/EHUko kideek eta kide ohiek sustatzen dituzten jarduera eszenikoak dinamizatu eta hedatzeko proiektu bat da, ehuKultura-Bizkaiak antolatzen duen programazioan parte hartuta.

Arte eszenikoetako konpainiek parte hartu ahalko dute ehuesZenan, betiere gutxienez konpainiako kideetako bat UPV/EHUko kidea bada edo izan bada azken lau urteetan (ikaslea, irakaslea, ikertzailea, AZPkoa edo ehualumni).

Erakusten diren proposamen guztiekin batera eztabaida foro bat, antzeztutako gaian sakontzeko eta konpainiako kideen eta ikusleen arteko partaidetza sustatzeko. Dinamika hauek Bizkaiko Kultur Gestiorako Bulegoak antolatuko ditu.

Es un proyecto de dinamización y proyección de actividades escénicas promovidas por los miembros y ex miembros de la UPV/EHU a través de su participación en la programación que se desarrolla desde ehuKultura-Bizkaia.

Podrán participar en esta iniciativa las compañías de artes escénicas en las que al menos uno de sus integrantes pertenezca o haya pertenecido en los últimos cuatro años a la UPV/EHU (Alumnado, Personal Docente e Investigador, Personal de Administración y Servicios o ehualumni) .

Las propuestas representadas se complementarán con una sesión de debate o mesa redonda, cuya finalidad será ahondar en la temática de lo exhibido y propiciar la participación entre los miembros de la compañía y el público asistente. Estas dinámicas serán organizadas por la propia Oficina de Gestión Cultural de Bizkaia.

Antzezlanak Bizkaia Aretoan aurkeztuko dira, ikasturtean zehar, eta gehienez ere 2.000 euroko aurrekontuarekin ekintza bakoitzeko.

Las representaciones se llevarán a cabo en el Bizkaia Aretoa, durante el curso académico, y con un presupuesto máximo por iniciativa de 2.000 €.

ⓘ **www.tinyurl.com/esZena**

## Nola jaso 'EHUkultura-Bizkaia'ren informazioa zure posta elektronikoan?

## ¿Cómo recibir información de EHUkultura-Bizkaia en tu email?

UPV/EHUk Bizkaian antolatzen dituen kultur jarduerei buruzko informazioa jasotzeko zerbitzuan alta ematea doan nahi duten lagunek webgunean eman behar dute izena esteka honen bidez:

Aquellas personas que quieran darse de alta gratuitamente en el servicio de recepción de información de las actividades culturales de la UPV/EHU en Bizkaia, solo tienen que suscribirse en la web, a través del enlace:

ⓘ **www.tinyurl.com/alta-ehukultura-bizkaia**



**Kultur Gestiorako Bulegoa**
Oficina de Gestión Cultural

**Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**
Abandoibarra, 3 | 48009 Bilbao
Tf.: +34 94 601 21 04
+34 94 601 71 42
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

**Ilustrazioa/**Cartel **Ane Pikaza**